

## **Nafarroako Esaera Zaharrak. Eraso.**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## Nafarroako Esaera Zaharrak. Eraso.

- 921 *Aixe esanak, etxera bil.*  
Aixe esanak nork bere kaltetan dituela.
- 922 *Anaie berekin zeuken.*  
Ardoak burua nasirik.
- 926 *Astoak atx! egin bearrean, makillek.*  
Nagusiak mutillari (morroiari) ez, baña mutillak nagusiari asarre egiten.
- 927 *A zer ipurdikoa izan zu(e)n!*  
Zer erorikoa, zer galtzea, zoritxarra.
- 930 *Berdin duk beltzean zuria jartzea.*  
Zorra pagatua dagola paperean ezartzea.
- 936 *Eguraldi txarrak erakusten du espalpeko gosea.*  
Espaletan dagon gariaren ikusteak, gosea piztutzen du.
- 937 *Eskalea aberats.*  
Ez ain gutxitan ikusten da ori.
- 938 *Eskalea beti artzekodun.*  
Eskaleak artzeko eskua luze, emateko motz.
- 944 *Goiz etzin, berandu yeki, beranduago lanera: berriz ere ez da faltako ogi txikia maiera.*  
Alako etxetan ori ere neketan.
- 945 *Ikusi ta itsu, aitu ta sor egin bear da.*  
Pakea izango du, bere baitan eta kanpoan, gauza txarretan ori egiten duenak.
- 946 *Izotz aundiak, lur gure.*  
Izotzak lur landua arroturik uzten du, langiro ederrean.
- 947 *Kandelera izotzetan, yoan da negue egan: Kandelera bero, negue eldu da gero.*  
Olatsu beste lekutan eta izkuntzetan.
- 948 *Lanez ittoa nago, baño or nauzu laguntzeko.*  
Ori biotz oneko kristaura!

- 955 *Or ari dire Abe Maria ta Santa Maria.*  
Iñoiz bukatzen ez diren otoitzetan ari diranez esaten da ori; eta bai elkarri zernai esaka ari direnez ere.
- 957 *Otsoak muturre otza.*  
Otsoa pisti izugarria dela.
- 972 *Zakurrek susmo aundie du.*  
Zakurrak eizerako, eta ardozaleak ostaturako.
- 974 *Ze? -Ardik anka me; ago erne!*  
Esan dena ez aditu ta beti zer zer zer galdezka ari denari erantzuna.
- 975 *Zerok ibilli zerate Abe Maria ta Santa Maria.*  
Zerok duzue errua.
- 976 *Zerriak loiera, lizunak lizunkerira.*  
Biak olako joera.
- 977 *Ziltzika-maltzika zebillen, eta malakatu zuen guzia.*  
Alper lanean ibilli eta guzia galdu.
- 978 *Zortzi minutotan izan zen aren atze-aurrea.*  
Gaitzak eman eta zortzi minutoren buruan il zen.